

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Iruigarren urtea. - Pamplona - Octubre - 1968 - Urrilla - Iruña, 32'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

ARALAR'KO AIZEAK

Euskalerriko biotz eta muñ dan ARALAR mendiko tontor baten gainean, itxasotik 1.237 metro gora, duela milla ta geiago urte ezkeroz, dago jasorik Mikel Aingeru Santuaren eliza, euskal fedearen ezaugarri ta begiratzalle.

Zer dala ta eraiki zuten eliza eder au olako toki elkaitz batean, denok dakigun gauza da, gure aurrekoetatik belanez belaan, ikasi baitugu Goñi'ko Teodosio zaldunaren kondaira, ots, nola deabruak edo engañaturik, bere gurasoak il zitun, eta nola, pekatu orrengatik Aralar mendian, «Ezeltzeta» izeneko barruti inguruan, penitentzi egiten zebillela,

San Migel Aingerua agertu zitzaion, erensuge ikaragarri batek iretsi nai zuelarik.

Zoritxarrez gertaera auen sustraiak lañopean izkutatuak daude, aoz ao bakarrik eldu baizaizkigu; beraz ez dezakegu istori bidez egiztatu. Baño agirian da zerbait izandu zela, olako eliz aundi ta ederra toki ortan ainbeste kosta ta nekeekin jaso zuteneko.

Dana dala, agitz beneragarriak ditugu bai San Migel'en eliza bai berraren irudia.

ELIZA

Bisigotiko ta erromaniko tankerak



edo estiloak erakusten ditu eliz-basilika onek; beraz esan dezakegu bedratzigarren gizaldian asi ta amaika edo amabigarrenean buru eman ziotela. Euskalerriko elizik zaarrena da beraz. Dudik gabe, XI'garren gizaldiaren asieran bazan eliz au, eta ongi aipatua izan ere. Ala erakusten digu 1.027'garren urteko Naparra'ko Errege Santxo Aundiaren agiri batek: onek, Iruñako Eliz-barrutiko mugak eta onibarrak aipatzen eta neurritzen ditu, eta beste gauza askoen artean onela dio: «Bestaldetik Arakil ibar osoa, ZAMARTZE'ko Santa Maria deitzen dan Monasterioa ta EXCELSIS'ko SAN MIGEL'en ELIZAREKIN eta oni dagozkion guziekin. (Ona emen, latinez, Arijita'k bere liburuan dakarzik bezelaxen: «Ex alia igitur parte tota vallis de Araquil, quod dicitur S. Mariae Zamarzes, Et cum sua Ecclesia S. Michaelis de Excelsis, cum eorum pertinentiis...»).

Arri bikañez egindakoa da (arbera edo arrigarratzaz eta galtziñarritz); 37'5 metro luze ta 14'7 zabal ditu; bere erdian, ollalokak bere azpian txitak bezela, beste elizatxo bat artzen du, 5'5 metro luze ta 3'5 zabalekoa.

Elizatxo onen barnean daude Aingeruaren irudi beneragarria eta erensugea atera omen zen leize-zuloa; kanpoaldetik berriz, orma edo paretatik txintxilikan Don Teodosio'k gerrian loturik zerabilzkien burnizko kate lodi pixuak.

«Oiek denak egiak ote dira?» galdetzen dute askok.

Erensugerik izan danik, ez duteste. Baño Don Teodosio, beste asko bezela, gerrian kateak penitentzi bidez, ibiltu izatea ta Aingeruarengandik mesede berexiren bat artu izatea, errax ditezkenak eta egitzat artekoak bide dira.

Ta aingerua bera agertu zitzaiola ere, zergatik ez?

I. A.

ARALAR MENDIA

Aralar da Euskalerrian aipatuenetako mendi bat. Ez naski gora delako; ba dira aundiagoak. Pagadi ederrak eta belar onak ba ditu; baño ez da orrengatik ere, gure Jainko-mendia delako baizik.

Zahar da, bere bizkar guziko arripilla eta inguruko leze sakonak bezela. Ba ditu suge-labe, sorgin-zulo eta gizon-jale ilunen esaera zaharrak. Noizbaiteko gizon aundiak Aralar mendian omen zuten beren ilarria. Baño denbora berean gazte da gure mendi nagusia TV eta tresna berri oiek sartu ditzkioten burni ziri luzeak, edo ango udazale guzien kolore biziak bezela.

Ez dakit zergatik, baño aundi zait alderik alde Aralar mendia; eta denbora berean txiki, oso txiki, euskaldunon ametsen garaian. Ilun, esaera zaharretan; garratz Goñi'ko zaldunaren gate-otsak; motz, ainbesteko aztapuak... Baño luze, ori bai, Jainkoa lagun euskal ametsen soka geroari begira.


Gure Mikel Goi-aingeruaren iduria bakarra da munduan. Zerua galdu zuten aingeruak eskuak burura eremango zituzten bezela eusten dio, bi eskuz, gurutzeari bere buru gainean. Geienetan ezpata eskuan eta suge-mutur beltza ankazpian duela ikusten da. Gureak gorputz baño aisa egal geiago ba du; ezpata ta ankarik ez; aurpegia ere gorderik zer baten barnean, Jainkoaren kosmonauta bezela.

Ez da gaurkoa Naparroan besoak jasota dagon Mikelen iduria. Amabigarren mendeko eliz atarian daukagu Berrioplano'n, Iruña inguruan. Eta zaharragoko arrian, uste dugun bezela bedratzigarren mendekoa balin bada Ikustetxe Nagusian (Museo de Navarra'n) dagona.

Eta zer esan Aralar mendiko elizaz? Aldare aurreko izana den 'retabloa' eta eliz buruko erromanikoa genituen ikusteko guzia. Barneko arriak agertzean antziñako eliza baten leyo mutuak atera dira orai. Au ote Naparroko eliza zaharrena? Jakintsuak agotan duten galdera da.

Denbora berean ostatua jasotzeko lanak abiatuak dira. Uste baño len gerta laike gure mendialdetako Zaindari Nagusiaren eliza euskaldunon sinestearen biotza; eta ango aterpea danon ametsen neurri betea. Denborak esango du. Gaur iñoiz baño geiago muga gabeko izen zabala dugu Aralar mendia.

J. M. S.





INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA

SECCION DE LENGUA VASCA

Después de doce años de actuación al frente de la Sección de Lengua Vasca de la Institución Príncipe de Viana de la Diputación, el Sr. Don Pedro Díez de Ulzurrun Echarte ha cesado en el cargo por voluntad propia.

Su época al frente de nuestra Sección encaminada a la defensa del Vasceuce, ha sido la de la iniciación seria y directa por parte de la Diputación Foral de Navarra de una labor dirigida a la conservación, fomento y prestigio en Navarra de nuestra querida lengua vernácula: El euskera. Durante diez años se trabajó y llevó a término la visita a todos los niños de edad escolar de la zona euskaldun de Navarra premiando a todos aquellos que sabían hablar en vasceuce.

Reciba el Sr. Díez de Ulzurrun nuestro agradecimiento por todo lo que ha laborado en pro de nuestra vieja lengua.

Hace dos años la Diputación, terminada la fase primera citada ante-

riormente, inició un nuevo plan encaminado a enseñar a leer y escribir a nuestros niños euskaldunes en euskera, y a prestigiarlo introduciendo su enseñanza en la Escuela Nacional, al paso que apoyaba toda iniciativa privada de constitución de Escuelas en vasceuce, o Ikastolas, tanto en las zonas de habla vasca de Navarra como en las zonas o poblaciones navarras no vascofonas actualmente, con objeto de fomentar el cariño por la «lingua navarrorum» a través de su conocimiento completo.

Para llevar a cabo este nuevo plan, a propuesta del Delegado Diputado para la Institución Príncipe de Viana, Sr. don Miguel Javier Urmeneta, se nombraron dos nuevos vocales: Los sacerdotes don José María Satrustegui, Párroco de Urdiain, y don José Manuel Lasarte, Capellán y Asesor de la Fundación Amazabal de Leiza. Ambos con conocimientos directos y claros de los problemas acuciantes a resolver para el mantenimiento en nuestra Navarra fuerte y vivo del vasceuce.

Los dos han trabajado habiéndose iniciado el curso pasado clases de euskera en las Escuelas de Alsasua, Leiza, Elizondo y preparado para iniciación posterior en Echarrri-Aranaz, Roncal, Santesteban... etc. De paso fueron subvencionadas las clases de lengua vasca que dan las Religiosas de Echarrri-Aranaz, así como las de la Escuela de la Iglesia de Alzate en Vera de Bidasoa.

A partir de este curso, la Diputación consciente de la importancia de esta nueva acción, la de la enseñanza en las Escuelas, ha nombrado como sustituto del Vocal cesante Sr. Díez de Ulzurrun a don Jorge Cortés Izal, natural de Ochagavía (Navarra), persona activísima, de inteligencia despierta, de acción, euskaltzale conocido, que como ejemplo de su actividad presenta en Pamplona a la vista de todos la hermosa Ikastola que con seis profesoras al frente educan a doscientos niños pamploneses, y dan los estudios de Primera Enseñanza en euskera y castellano.

Al mismo tiempo la Diputación piensa brevemente nombrar dos vocales más de la zona del Baztán Bidasoa para completar esta Sección que al frente del Sr. Cortés Izal esperamos llegue a la cúspide de su éxito.

Con nuestro deseo y esperanza, enviamos nuestro saludo de bienvenida a don Jorge Cortés Izal, poniéndonos a su disposición y órdenes.

Angi etorri izan dedilla Cortes Izal jauna eta gure artean urte askotan ikusi dezagula.

ESKUALERRIKO LEIOA

IRUÑE'KO «EUSKAL ERRIAREN ADISKIDEAK» ELKARTEAREN ERABAKIAK

Iruñe'ko «Euskal Erriaren Adiskideak» Elkartearen «Euskal Ikasgaien Akademia»k erabaki auek artu zituen:

Euskal Akademiari (Euskaltzaindiari) bere Urre-Eztaietan biotzeko agur bat bialtzea, lenengoz. Bigarrenez Euskal Akademiaren Presidente den Lekuona Jauna «Euskal Ikasgaien Akademia»ren Merezimenduko Akademikutzat artea. Eta irugarrenez Oñati'ko errian Urrillaren lenengo egunetan izan diran Billeratare joateko Ordezkariak izendatzea.

Zorionak Iruñe'ko Elkarte onen Zuzendari eta Sekretario diran Jose Estornes Lasa eta Karlos Klaberia Artza jauneri; baita ere Euskaltzaindiaren Buru den Manuel Lekuona Apez Jaun Agurgarriari.

ZARAUTZ'KO EUSKAL ASTEA

Zarautzarrek gauzak ongi egiten dakitela denok dakigu. Dela laisterkari proba inportanteak, dela Euskal Kultura astea... eta. Euskal Astea urteoro bezala aurten ere ospatu dute, eta nola gañera! Dantzariak, Kantari-taldeak, Euskal-Irudiak, Euskal Erromeriak, Euskal Teatroa, Euskerari buruzko elkarrizketak, itzaldiak, eta abar.

Zarautz'ko erria nagusi da euskal errietan euskal giroa apaintzen. Agur bat zarautzarrak!

«ZERUKO ARGIA» ETA «ANAITASUNA» EUSKAL ALDIZKARIAK (ERREBISTAK)


Euskaldunek bi euskal errebista baditugu euskeraz idatziak: Bata Donostian astean bein argitaratzen dena, «Zeruko Argia» izenezkoa. Edozein arpeduna, suscritorea, egiten ahal da, zuzenbi ontara bere izendeiturak bialtzen: «Zeruko Argia» - Oquendo, 22 - San Sebastián. Beste «Anaitasuna» izena du eta, Bizkaian amabost egunean bein ateratzen dana. «Anaitasuna» errebistaren arpeduna izateko zuzenbide ontara idatzi bear da: Torre, 3 - 1.º - BILBAO (5).

BAXENAFARTARRAK ETA ORREAGAKO AMA BIRGINA

Urteoro bezala aurten ere Orreagarako Erromeria edo Beilla egin da pasatu berri den Buruillaren emezortzi egunean, aste bete bat atzendurik.

Ikusgarri da gure mugaz beste aldeko nafartarrek Orreagarako Ama Birgiñaren Beilla egiten dutena. Besperatik nafar gendea abiatzen da Orreagarantz, batzuk oñez, dela Alduide, edo Luzaideko mendietatik, dela Baigorri, edo Bankako bideetatik. Beste batzuk autobusez edo turismoz, denak gure Auñamendiko Zaindariari egur egitera. Milla pertsona inguru bildu ziren aurten Orreagako elizan.

Goizean Meza Nagusia izan zuten, bost apez meza-emaille zirelarik. Ondorean Orreagako ostatueta, edo zelaietan, bazkaria izan zuten eta indarrak arturik berriz ere Elizara Errosarioa otoitzi egitera, azkenean «bertze bat artio» eta Ama Birgiñaren Agurra kantaturik.



Irudi agurgarria

Orko milla ta berreun bat urtetik onuntza ARALAR'ko elizan agurtzen dan irudi edo imajiña noizkoa edo nundikoa danik, ziur ezin esan dugu. Badira uste dutenak Aingeruak berak Teodosio'ri utzitakoa dala. Beste batzuk diote Teodosio'k egindakoa dala, Aingeruarengandik artu zuan mesedearen eskergarri ta oroigarri.

Dana dala, ez ta urrezkoa, amazazpigarren gizaldian ostu zuten lapur aiek usteko zuten bezela, edo ta orain ere askok uste duten bezela. Zurezkoa da; 70 zentimetro goi ditu ta aga baten gañean erabiltzeko egokitua dago. Sifnestunei apainkiago ager zedin eta erriz erri ibilli bearraren arat-onatak, gora-berak eta zear-mearrak ondatu etzezaten, zillar urreztatuzko jantzi batez estalia izandu zan aspaldi aspaldian.

Urre itxura ori dala ta, dena urre zelakoan, bizpiru aldiz ebatsia izandu zan gure irudia, noizpait «Principe de Viana» ontan esanik dagonez.

Lapurreta ta ibillera oiekin, franko ondatua gelditu zan; ta Iruñe'ko Gotzai Don Juan Grande Santos'en aginduz berritu egin zan; baño lenbiziko berritze onekin ez bide zan oso egoki gelditu ta geroago, 1756'ko jorraillean, Don Lorenzo Irigoien, Belate'ko Prioraren aginduz bigarren aldiz berritu zan San Migel'go sakristian bertan, Don Lorenzo onen eta beste testigu askoen aurrean. Lekuko auen artean zegoen Burgi'ko Tomas Aita Kaputxinoa, San Migel'en Istorri luze-luze bat idatzi zuana.



ELIZAREN ITZA.

BATIKANO II ELIZ BATZAR NAGUSIA

ELIZA GAURKO MUNDUAN (cap. I, 22)

Elizak, Jainko ukatze ori, era bat, txarki ikusi arren, ezagutzen du gizon guztik, sinesdun edo ez, mundu berean batera bizi bear dutela eta mundu ori eraikitzen elkarrekin lan egin bear dutela. Ori elkar aditu gabe ez diteke iritxi. Ez dezake beraz begi onez ikusi zenbait agintarik sinesdun eta sinesgabeen artean egiten dituzten berekuntzak, gizonen nortasunari dagozkion eskubideak oinperatuz. Une berean, sinesdunen alde egizko askatasun bat eskatzen du, mundu ontan bertan Jaungoikoari eliz bat jaso ahal izateko, Jainko gabekoari beste alde, Xristoren Berri-Ona biotz zuzenez begira dezatela eskatzen die.

Garbi daki Elizak, gizonen jo-muga edo bokazio goi-goikoa adieraztean, giza-biotzen muñ-muñekin ados dagola erakusten dun ori, goragoko mallak iristeko gai ez direla ta etsitakoei, itxaropena itzuliz.

Gizonei kuzkurtu ordez, argi bizitz eta askatasuna banatzen die, biotzen utsunea beste ezerk ere ez baitdezake bete «Zuraetzat egin gaituzu, Jauna, eta zu opatu arte ez da aietuko gure biotza» (Agustin S. Confs.).

Benetan, gizonaren izkutu edo misterioa, Jainko gizon egiñaren misterioakin argitzen da bakarrik, Adan, lengizona, etortze-koaren irudi baitzan, ots, Xristorena. Xristo, Adan berriak, azaltzen dio gizonari bere etorkizun goi-goiena. Ikusi ezin dezakegun Jainkoaren irudia (Col. I, 15) Jainko antza, pekatuakin itxuragabetua, itzultzen du Berak lenbiziko edertasunera, Bera baita gizon betebetea, onritua. Giz-izakera artu, desegin ez, eta goi-goiko mallara jaso, Jainkoaren Seme izanik gurekin bizitu zen, giz-eskuz lan egin, giz-adimenez pentsatu, giz-naimenez zuzendu eta giz-biotzez maitatu. Andre Marirengandik jaiota guretako bat egin zen, denetan, pekatu ez bestetan, gure antzeko. Erru-gabeko bildotsa, Berak ala nai ta ixuritako odolez Jaungoikoarekiko pakea irabazi zigun, ots, betiko bizitza, pekatuaren zikiñetik garbiturik, geroztik edozeinek Apostoluakin esan dezakegu «maitatu nindun eta bere burua neregatik eman zuen (Gal. 2, 20).

Sinesmen argitsu eta gozo au, Espirituak gizon bati barne-muñetaraño sartzen dihonean, miña, nekea eta eriotza bera, beste begiz ikusten dira, illen sagara aurrean aitortzen dugun bezela, Xristori jarraitzen diotenari, bizitza kendu ez baña aldatu egiten baitdake, emengoa aitzean, betikoa zabaltzeko zeruan.


Ona emen, itzez itz, Aita onek berritze ontaz erderaz esaten diguna: «Habiéndole desprendido el Platero el antiguo vestido de plata, vimos todos, que el cuerpo, y la cabeza de la Imagen Sagrada eran de una misma especie de madera muy morena, y muy sólida, que nadie pudo conocer, ni aun el Maestro Carpintero, que asistía al examen ocular».

Gero esaten du, zeatz eta meatz, zurezko irudia nola zegoen konpondu aurrean eta zeñen apañ eta eder geditu zan konponketa ondoan.

Berriz ere ostua izandu zan irudi beneragarria. Noiz eta nola, eztagigu; dokumenturik eztagolako; bakarrik dakigu Iruñe'ko eliz nagusian berealdiko elizkizun eta jaiak egin zirala 1797'ko garagarriaren 11'garrenean Aingeruari egin zitzaion gaiztakeriaren ordañez.

Arrezkeroz, dakigula, ez ta geiago ostua izandu gure Aingeru gaixoa. Naiko aldarte ta erreska jasan ditu bere denboran. Ezpatarik edo aztagarik eskuan ez ibilki. Bere arma bakarra, buru gañean daraman gurutzea da, Jesus'en gurutzea, anaitasunaren eta maitetasunaren ezaugarria.

Zertako armak, Zertako, galeperrak eta usoak botatzeko ezpada?



BERTSO BERRIAK

ZAR BATEK JARRIAK

(«Goldarazko Bertsolaria» zenak jarriak - 1922 urtean)

1922 garren urtean (ainbeste aldiz bezala) laster-apostu bat izandu zuten naparrokoak eta gipuzkoakoak.

Naparrak galdu izan bear zuan!

Bertso auetan GOLDARAZKO BERTSOLARIA, ia bizkarrian urte mordoxxa zituela, yoku edo apostuaren goraberak utzita, arrokeri ta beste griña gaiztoren kontra konseju ederrak ematen dizkigu («GOLDARAZKO BERTSOLARIA» liburutik artua).

UDA AZKEN ARGAZKIAK

¡A zer nolako sasoi dagon Uda-Azkenari abesteko. Ekartzen ditun gauz on onari zoraturik begitzeko. Bere besoetan ordu ta orduetan xamurki lukartzeko. Bere on eta goxotasunian litekian aña sartzeko. Uda-Azkena, badezu ainbat ontasun zu goratzeko!

Ego aizia, aize epela, etzaitz, ez, arroxxatu. Orañ zorrek biar dituzu kosetxa denak sasoiu. Indar geitxokin etzaitz utera: bazter guztiak ez soilldu. Gero bertzela euriak jasan dituzte lekak usteldu. Emaitz ugariak erditaraño dirade askotan biurtu.

Ara zertaño Uda'ko izerdiak galtzen zaizkigun askotan. Eskuetaraño ustez ekarri gaudela danok pozetan, t'atzaparkazo gaixto batekiñ, ¡gure poza negarretan! Urrengo urteko Uda bitartian, etzaitz egon ametsetan. Galduak galdu, goratu Jainkua bere erabakietan.

Bilduta daude aurtengo emaitzak ganbara aundi, zabaletan. Egoko dira sagar aliak sagardotzat tolaretan. Muztigu mama eroriko da zorrotian kupeletan. Igeri dabill Euskal baserria ontasuna ibaietan. Sagar, gaztaña, mizpira, udare, ta eltze ornitua maietan.

Itsaso aldetik odoi illunak gainezka dira aurreratu. Txori ta egazi, pasarakuak berora ziran aldatu. Iratze orritsua, abere oia, mendietan zaigu gorritu. Noiz nai tximixtak, trumoia atzetik.

Mendi gaillurrak elurtu. T'aize otz-otza, kazkarabarrak, dituzte ardiak izutu...

Mendi bidia toki tokietan ikusten dira loituak. Bide oietan ez dira entzuten kanta ta irrintzi oiak. Artzaien txixtua, zakurren saunka bilduz ardi zabalduak. Atozte, ardia maitetu oiek; biar zaituztegu elkartuak. Ez bazerate laxter babesten, izango zeate galduak.

Arrats ituna, beltzenetakua; izar bat ez da zeruan. Illargia ere gordeta dago Jaungoikuak nai dun lekuan. Mintzatzen dira aize guztiak burukaldi ta soñuan. Aiziak aize, lotako giro nor bere gela txokuan. Lotan gaudela elur txuriak pasara eman du auzuan.

San Martin aurrian edo t'atzetik egiten daki urtero udaraxo bat atsegin dana, eguzki eder eta bero. Zuzate orduan biltzera azkenak sagastegi eta soro. Denbora txarrak jo baño lenao,

zuazkit laxterka; ez egon lo. Ori egiten ez'bauzu orañ, alperrikan ez jun gero.

Geroztik ¡kontul negua dator ta dago gure gañan. Izan bildurra. Ez da gauz onik; agirik dauzka azalian. Etzaitz ibilli aiziak artzen jantzi ariñez kalia. Obia dezu gaztañak jaten egon zure sukaldian. Ta gero zuaz lotara beila ¡aungoikuaren pakian.

Jantzazu, erlia, orañ gogotik gordeta dezun ezia. ¡Bazaude lotan eriotzen luan jantzirik gabe, mastia. Larru bizirik, illa bezela dago orañ sagastia. Elur, izotz ta kazkarabarrak, kanta Jaunari abestia. ¡Nun zaude orañdik? ¡Tokitan [zaude,

Uda-Berri maitatia!

JOAQUIN ALDAVE

Gure bertsolaria



Mikel Arozamena eta Andres NARBarte izan dira amar azken urte auetan Napar Txapelketa geienetan txapelkun gertatu direnak. Auen alboan baditugu ere Naparroan bertsolari pilla eder bat; ona emen bertsolari bakoitzaren izen eta zuzenbideak:

Mikel Arozamena, Lesakakoa. Hernanin bizi dena orain. Orkolaga-kalea - 13 - 3'gna (Eskubikoa).

Andres NARBarte, Txemenekobordako Goizuetakoa. Bautista Madariaga, Aranaz (Olajaunenbordakoa). Martin Oreja, Errazkingoa. Txetxuneko etxea.

Manuel Huizi, Aranokoa. Manuel Lasarte, Leitzeko semea da, eta orain Orion bizi dena. Angel Aldatz, Basaburutarra. Udabeko errian bizi eta Basaburuko karterua da.

Felix Iriarte, Arizkungoa. Jose Antonio Arribillaga, «Bordaberria» izengoitiz. Leitza.

Mikel Zabaleta, Aresoko errian bizi da. «Ibiur» baxerrikoa. Martin Aziproz, Aresokoa.

Simon Ibarra, «Zubikoa» izengoitiz ezagutua. Sunbilleko semea da eta mugaz beste aldeko Banka'ko errian bizi dena.

Manuel Arozamena, Mikel Arozamenaren anaia da. Astigarragan bizi da.

Juan Perurena, Goizuetako semea da, eta Arizkunen ezkondua. Indakoborda (Orabideko Auzoan).

Jose Maria Mutuberria, Eltzaburukoa (Ultzama). Klemente Ezkurdia, Gorritikoa. Elizondon bizi dena. «Gorriti» izengoitiz ezagutua.

Badira ere beste bertsolari sail bat emen aipatu ezditugunak. Azkenerako Naparroko bertsolaririk onen eta yauena utzi dugu oro gaitetik eta berariaz aipatzeko: FERNANDO AIRE, «X a l b a d o r» ezinez ezagutua eta mugaz beste aldeko Naparroan UREPELGO erri politean bizi dena.

Napar bertsolari guzietan gure agurrik beroenak. Zuek zerate gure euskeraren erriko poetak, gure euskeraren atxikitzaileak, gure euskera bizkortzen duzuenak. Denei agur maitekor bat.

— 1 —

Donostiako Poyuelotik Mugerza dago kantari, Zarauz ta Aya bitarte ortan zer pasatu dan kontari; askorendako etzala ona laster apostu lan ori ego aizeak eraman dula napar orbela ugari, gaztearekin bear genduzke oien ordañak ekarri.

— 2 —

Esku beatzak ezdaude berdin ori da gauza jakiña, ezbaita bear izaten ere abillidade berdiña; naparrak etzun iduki bear gorputzaldilla bikaña, modu orretan kontrarioak aise artu du tamaña: galdu dun batek esan dirade ez ta medikua baña.

— 3 —

Mugertzak dio izan dirala gaban aundi ta alkonak, sartziagatik beren patrikan ezdakitenen txanponak. Zeñen ederki egin dituzten trabesgillian pregonak! Bakoitzak bere opiziuba nonnai badira gizonak; odolik gabe sangeratzeko oriek, Ay... zer peonak!

— 4 —

Laster apostun asko galduta gabian berriz jokatu, bietan suerte txarra zubenak poltsa ederki bajatu; aberastera abiatu ta

loteri txarra tokatu... Orain lana azkar egin dezagun eta piska bat sobratu; Pako Etxarri bezelako bat bearko degu billatu.

— 5 —

Ganaduk asko balio dute esneak berriz geiago, nekazariak ainbeste diru etzun izaten lenago: Larraun ta Araiz, Leiza ta Areso toki oberik, non dago? Gañera berriz apizuban diperentzia badago, Euskal Erriko apostularin korte guzia or dago.

— 6 —

Konseju onak ematen dira lan dago ezin egiña, diruba dabil ugari eta jendea berriz ariña; orretarako apizuba ori da gauza jakiña. Utsa litzake oraingoakin eskarmentatzen bagiaña! Bildur naiz laister asiko diran ekarri naian ordaña.

— 7 —

Banaketako obeak dira aposturako bideak, ezdakit nola galerazitzen ezduan ori legeak; familik ondo gobernatzeko esaten ditu fedeak, txorakeria irudi dute asko gizonen usteak: etxe askotan bizitzen gera nagusi praka gabeak.

— 8 —

Aitona zarra negarrez dago semiak diruk galduta, etxeko andre nekez beterik barrendik oso aulduta; senarra berriz beti parrandan bere lagunak artuta, gobernadore balitz bezala

zaldi beltzian jarrita: baita ondutu egiten dire baztar guziak galduta.

— 9 —

Aitona zarrak eskarmentatzen ari dirade ederki, batzuek beintzat ikusten ditut ezdabilzela egoki; bear baño len galonak eman bizi naian obeki, kabian dagon txorikumiak bela begiak idiki... obeki zuten gizagajo oiek zartari eskun iduki.

— 10 —

Gizon abillak esaten dute ez aritzeko jokuan, bizio txarrak sartzen dirala bere neurritik kanpuan; bear diranak erosi eta sobratzen dana kolkuan premin danari ordañez eman edo jar zagun bankuan: askoz obeto bizitzen baita bakoitza bere txokuan.

— 11 —

Ondore txarrak izan dituzte asko apostulariak, bolada batez ondo jan eta gustoko alperkeriak; agudo samar bajatzen dira oien abillidadeak, oriendako erretiruba diariorik gabeak; titulorikan ezdute eta opiziale pobriak...

— 12 —

Bere biziak askok galdu du jokua dela medio. Modu orretan anima ere ibilliko zan serio...; tranze askotan ezbaita erraz ematen erremedio; preziso bear dan garaietan gezurrak ezta balio... Oriek ola pasatzen dira beste bat arte, adio!

AMA MINTZO (II)

— 1 —

Egi batzuek adierazi nai nituzke umeri: on egiteko asmoarekin mintzo naiz gazte-zarri: ama ixilik ezin egon da ikusiz bereak eri: amak eman nai sendotasuna ta osasuna deneri.

— 2 —

Urtean beingoz nere eguna plantatzen duten errian, ni maiz nabile biotza ilun ta malkoakin begitan, aski garbiki ikusten baidut, erraten datzet egitan, nere ez direnak asma dutela egun bakar au sarritan.

— 3 —

Nerekin deusik ezdute naiko egun ortatik kanpora: nere itz batik bakarrik ere etzale eldu agora: lau txanpon zikin ateratzeko bakarrik naute gogora: gezur auserkiekin or dabilz «Gora, Amatxo, goi-gora!»

— 4 —

Txistu-soñua urte guzien inguraturik etsaiez. Txistua bere atabalakin egun ortan, «Naitanaiez!» Orregatikan egun ortantxe plaza beterik «ezkaiez». Dantzan ez ariz, ezda iakiten dantzatzen pausu lasaiez.

— 5 —

Zenbait etxetan prest-presta [daude

paxa gorri, espartañak, lengo iauntzi ta buruko zapi, egun ortako egiñak. Mutillak, euskal antza daukate; neskak, ustez, poxpollifiak. Baña deus guti arki dezake itzkuntzako azterkifiak.

— 6 —

«Neska polita» bakar bakarrik erraten daki mutillak: «Aitatxo» eta «Amatxo» ditu ikasirik neskatiñak. Pozik negoke umetxo okin; itzkuntzan ditut abillak! Tantai sendorik... nekez ota-ziri aldakor zingillak!

— 7 —

Nere eguna maite duenak, ni ere maite nazala. Umeak beti ari bear du bere amatxok bezala. Berze gauz oiek nere ustez [dire naimen eri ta argala; arrabots pixka, itxura zerbait, barren gabeko azala.

— 8 —

Zuk ongi ikasirik daukezu ni maitatzeko ioera: zure agotik etzazu utzi zure lengoen itzkera: zurekin ari diren guziek egin bezate lan bera: lan ortaz danoi, ume maiteok, eskerrak beti. EUSKERA.

IBARRONDO

EUSKAL LUR MAITE



Abesten det lurrari, ezi diralako
Abestu dezaiozun, bai, gure lurrari. Gure Euskal-Erri, ama lur maiteari.

Ondo dakigu euskaldunok nolakoa dan gure lurraldea: ederra, txukuna, lore ta margolaz ase... zoragarria bene-benetan.

Urdira ta neurrerik gabekoa da gure itsasoa. Ederrak itsaso-bazterrak, erri pozgarriaz mugarrituak.

Apañak gure mendi ta ibarrak. Gaiñ batetik begiak itzulitzen badi-tugu alde guztietara, zenbat gauz arrigarri ez. Ze ikusmira ederra!

An, urrutian, Aralar. Edo Aitzgorri. Edo Gorbea... zerukin bat egiñak, Euskal-Erriko nagusiak izanik. Aien magaletan bertze mendiak, seme-antz, elkarrari esku emanaz, egiazko anaia bezela.

Ta arteko errekada ta txoko guztietan barna, aldapa ta triskak yautsiaz, ur ari bat jostaketan, betiko atseden izango dan lekura bidea egin naiez.

Euskal-Erri. Ama lur maite. Nork sortuazi zitzaizun aini ikusgarri? Yainkoaren Eskuak ipiñitzen dizute, neguero, elur txapel txuria zure

mendien galdurruetan. Aren Naiez ikusten ahal dezu, arro, zere burua itsasoako sakon edo beitasunetan.

Bañan... bañan nork margoztu dituzte zure belarsoro, larretegi ta erriak? Nork txertatu zituan zure in-tsauro, udare, sagar ta aritz ondoak? Ta txertatuztea ezda naiko, nork indartu ta ezi zituan?

Orra or baserritar-euskaldunen esku zañardunak. Aiek jakin dute etxeak altsatuzten, bai aldapa gaiñ, bai txokoetan, edertasun, txukuntasun ta... nik ez dakit zenbat geitason iratsiaz zure mendi-zelai aiekeri.

Urratu dituzte lurrak, siñestu ahal ezin ditezken lekuetan, lar-tegi ta sasi lekuak, belarsoro ta landa biur-tuaz, egoki.

Euskal-Erria, zer da baratze ta loteregi bat ez-ta? Ta lore-zai, nor? Baserritarrak, alegi. Baserritarrak ta gu. Aiek lore-zai ta baratze-zale zintzoak. Gu ere, batzuek geiago, besteak ez ainbeste, euskal-baratze onen zaindariai gerade.

Nork, ba, guk ez-ta, sortuazi dituzte gure erriak? Nork bildu ditu kale-etxeak Elizaren inguruan? Ta, kale estuak, erriko zañak bezela, nork saritu ta nastu ditu? Guk. Yoan diran ta oraindik geraden euskaldunok. Guk txuritu ditugu gure bizi lekuak; loreakin txukundu gure leiobalkoiak; margoztu gure atek.

Yainkoak sortu zuen gure Euskal-Erria. Guk zaindu, moldatuaz. Ez deñ, ez aizerik, ez euririk, ez gizonerik, aenbeste urteko lanak ankapetu ta ondatuko dunik.

Euskal-Erria da goizeko argi-ekzila. Edo zortzietako lan-dei tutua.

Euskal-Erria da gure arrantzale aien iraulpen zalla.

Da Santurce'ko arrai goxoa. Getaria'ko sagardua. Ta Naparroako ardo bizkorgarria.

Bersolarien erriko poza abestia.

Gure errekaetako uren indarra. Soroen eztitasun arrigarria. Ta gure mendien gaintasuna.

Zeruen urdiñ garbia. Ytsasoen azken gabeko beitasuna.

Da, baita, an eta emen, neurrerik gabetenik banatuko baserrien ixiltasuna. Ta erri aundien azal-batasuna.

Ta... gerade gu. Euskal-Erria da gure sortu-leku berexia. Gure ama lurra. Gure... dana. Orrengaitik gaur abestu nai dizut, parekerik ez daukan zure izkuntz ontan.

Abesten det lurrari, sortu diralako.

ERKIZIA

SAGI

IKASI, MIKASI...

¿Astoa bezin txintxoak, ere, ez?

—Barka beza, jaune, beorrei galdeat ithea ausartu ba'naiz...

—«IKASI, MIKASI»n galde egiteko ez da barkazio eskatu bearrik.

—Ala izan eskeo, ara, emen, nik jakin nai nukena. ¿Zeiñ mandamentudutaz uts eiten da gein geina?

—Seigarrenian, izango da.

—Beorrek dionin...

—Ez, nik diotelako. Ala diote denak. Euskeraz esango dizut, erderazko berso polit batek diona:

Barkamen osoa ez ba'dago
Seigarren mandamentuan,
Eta rebaja aundi xamarra,
Gelntzat, zazpigarrenguan...;
¡Ongi lasai egon bearko du
Jainko Santua zeruan!

—Barka beza, baño, nee ustez, mandamentu zallena, lenbizikoa da.

—Ez nuen aditu orain arte olakorik. Arrazoion bat izango dezu orteorako.

—Ara, emen, nere arrazoie. ¿Nok maitatzen du Jainkoa, gauze guzien gañean? Nok negar egiten du, Jainkoai ofenditu diolako? Gutxi izango dee. Ta, ¿nok ez du negar egiten familikon bat iltzen zaionin? ¡Jainkoa gauze guzien gañean maite izango baginuke...!

—Maitetasun EGIZKOA, maitetasun IRUDIARI, maitetasun BIOTZIARI, nasten duzu zuk. Gauze bat izan diteke ITXUREZ aundiagoa, ta beste bat EGIZ, IZATEZ.

—Larre-gizona bai naiz, jaune, kuestio auetan, ez neeke, beste alde batea, adierazi beorrek diona?

—Ejemplo batekin adituko dezu obeki, zuri esaten asi naizena. ¿Zure amaren esana egiteagatik, zure amari atsegin emateagatik, konfesatuko zinuizke zuk zure pekatu izkutenak?

—Ez, jaune.

—Baño, Jainkoak agindutakoa betetzeatik, konfesatzen dituzu. Orrek esan nai du, EGIZ, naiz ez IRUDIZ, zure ama baño maitego duzula Jainkoa; Jainkoagatik egiten bai duzu, zure amagatik egingo etziñukena...

—Ortan, bai, arrazoie du beorrek. Alare, konfesio guzitan kezkan bai nabil ¿pixkeat geixeo esan benezake lenbiziko mandamentutaz?

—Zuk nai duzuna, edozin Kistar-Ikastian, Dotriñan, ikusi dezakezu. «JAINKOA MAITE BEAR DEGU GAUZE GUZTIEN GANEAN, JAINKOA IÑOI BAÑO GEIAGO ZOR DIEGULA-KO».

—Len bezala, jarri beza beste ejemplon bat.

—¿Zergatik maite du txakurrek bere jabea, beste iñor baño geiago?

—Estalpea, jatea ta maitekia ematen diolako.

—¿Zergatik aurrek beren aitamak maite ditute beste gizon eta emakume guztiak baño geiago?

—Beren aite ta amai, bizi ta maitetasun aundiena zor diotelako.

—Ara, bada, zergatik bear degun maitatu Jainkoa gauze guzti gañean: Berari zor diegulako geran guztia. Jakiñe da, Jainkoak egiñek direla gauze guztiak. Batez, ere, maitatu bear dugu Jainkoa, oso gogoko anima eman digulako, ta, bataioaren bidez, Bere familikoak, Bere semeak, egin gaitulako. Orrengaitik, Kistar-Ikastian digun bezala, gertu bear giñuke egon mundu ontako

gauze guztiak galtzea, Jainkoa galtzea, Jainkoa ofenditzea baño...

—¿Nola, bea, aini ergelak gera, gauze guzi oitaz atzenduta bizitze-ko?

—Orain esan dezu. ¡Ergelak gera! Ta, ergelak geralako, bear baño gei-agotan, egiten dugur erraxena dena, gorputzentat pozgarriena dena.

—¿Betiko kontua izan da, beorrek dion ori?

—Bai. Zorigaitze, naiz ez orain ainbeste, gizonak eta emakumeak, Jainkoaz aztuta bizi izan dire, maiz biñepin. Begira zer dion Isaias iragarleak:

«Aditu, zeru ta lurrak, Jainkoa mintzo da ta: SEMEAK SORTU, AZI TA GORALDU DITUT, TA AIEK AZTU TA EZETSI NAUTE. IDIAK BERE JABEA ZEIN DEN EZAGUTZEN DU, TA ASTOAK, ERE, BERE NAGUSIEN GANBELA-BIDEA BA'DAKI. BAÑO ISRAELEK AZTU NAU, TA NERE ERRIAK NERE ABOTSA EZ DU ADITU NAI... (Isaiak, 1-2).

—¿Izango da, noski, Jainkoa ezin ikusi degulako?

—Begiakin, ez; ezin degu ikusi Jainkoa. Baño, zetako degu adimena? ¿Zetako arrazoie? Eta, ¿ez digu erakusten arrazoiek zer bear degun egin, abereai sumaezagerak zer bear duten egin erakusten dien bezala? ¿Nok erakusten die pagousoai, udazkenin lur beroetara joan bear dutela? ¿Nok erlai, familin bezala bizitzeko? ¿Nok idiai, nok astoai...?

—¡Egitan, astoak baño astoagoak gera askotan!

—Gogorregi esatea da zuk diozuna, baño, bein baño gaigotan, egi negargarria besterik ez da. ¡Zainbat eta zainbat gizon eta emakume bizi dire, aste guztian, il guztian, urte guztian, Aitagure bat ere erreztu gabe! ¡Ta, pozik, Jainkoan izen santua zikintzen ez badute birau zakarrek!

—Gizon eta emakume onak, ee, izango dee mundu ontan...

—¡Ez dire, bada, izango! Gaiztoak gutxinak direla ustean nago. Geinak, zabarrak besterik ez dire. Onak, ere, Jainkoai eskerrak, asko dire, maizenik biñepin, ta batzuk santu aundiak, ere, bai. Begira, ejemplo bateko, zer digun Kurutzeko Paulo Santuaren, Pasionisten Fundadorearen, bizitzak. Kurutzeko Paulo Santua, misiolari famatua izandu zen.

Erri batetik bestera zoianin, euntzi barna, bere pastonakin jotzen emen zien loreai, esanez: —«Zaudete ixil: ba'dakit zer didazuten: —MAITATU ZAZU JAINKOA, GAUZA GUZTIEN EGILLEA». Beste batzutan, lagunon batekin zoiela galdetzen emen zion: —¿Norenak dire zelai ok? Eta, aien jabea nor zen esaten ba'zioten, erantzuten emen zion: —«Ez, ez; zelai ok Jainkoan dire! ¡Jainkoa bai da gauza guztiñ egillea!».

—Mille esker, jaune, beorren esanangatik.

—Ta nik, bukatzeko, gogoratu nai dituzte ta biezintat, eta «IKASI, MIKASI»n leizale guztientzat, Eskritura Santuen itz gogor auek: ¡IDIAK ETA ASTOAK, BEREN JABEA EZAGUTZEN BA'DUTE...!

A. ASTIZ ARREGI

EZKIL JOTZALEAK

Euskaldunok izatez apustulari omen gera. Orrengaitik ditugu ainbeste txapelketa. Eta orai bat gehiago. San Migel egunean eta Aralar mendian, ezkil jotzaleen txapelketa. Amabost bat, azkenean amasei sokalari, eta jende asko ezkeri begira. Denbora otza eta luzexko aurtengo sayoa. Munduko autoak bide baztarrean.

Gure txapelketa gaztena izango da; bigarren urtea. Alare, adin aundiko jokuen itzala ta gartza artu duela esango nuke Iyabar'ko festak. Len biziko asiera artako jendearen bildur eta patxada ixila baztarren utzirik, iritziasko entzuten zen langarrarekin nastuan. Ikusi ditut organolari trebe eta diskotan beren txintxurretako etorria emana diguten kantariak. Mundu zabalera edatua da Iyabar'ko ezkil denya.

Jokabide berri onen ikasgaiak ageri dira. Alda aundia ba da entzun ditugun doñutan. Erri bakoitzaren nortasuna adierazten dute ezkilak. Erriberako joera eta gurea, esate baterako, ez dira berdinak. Iruzki lurrarekin gizona indarrez ari da bere egitekoan; kementsu. Baztar aundi eta traba gabeko zelayetan auskolo noraino elduarazteko moduan. Ori da, izan ere, ezkilaren egitekoa.

Mendi aldean ez da ala. Ezkil aundiak dira eta alare inguruko ton-torrak ixilarazten dituzte; iresten eta jaten. Inguru mearretan ezkilaren deia erritarrendako gelditzen da eta indarraren orde, biotza da neguse. Doñu arin eta musikari ritmoa; artist lana. Doneztebeko ezkil jotzalea kitarraren ariekin etzen finago ariko. Eta bizkaitarrak euskal kantu ezagun baten airea ekartzen zigun gogora. Musikaria dela esango nuke...

Bien artekoa, Sakana. Izan ere, ala da Barranca: gure menditako erribera txikia. Barrankesak menditarrak izanik, ba dute erriberakoen azal gogor bat berekin. Ala esaten digute beintzat. Eta ezkil kontuan ba du Sakanak bere eskola berexia. Arrigarri da zoin iduriak diren inguru ontako erri guztiñ ezkil jotzeak. Elgar artuta ari direla iduri; eta orai arte etzuten elkarren berririk.

Tomas Ganboa Arbazuko txapeldunak beste erritar bat izan zuen etsai aundi: Pedro Arratibel, Iruñen bizi dena. Txapelduna amabostgarren ari beharra zen eta amalaugarren beste erritarra. Azken orduan Estellerriko bat sartu zuten bien artean. Jendea joaten asia zen; berek galduko zuten. Zoin baño zoin obeki ari ziren biak. Ezin zen geiago eskatu. Nere ustez bizitasun gexagorekin txapelduna eta orrek eman zion berriz ere saria. Doñu bakoitza etzuen asko errepikatu eta iñun diren aldaketak sartu zituen bere sayoan. Neurririk asko esan nahi du gauza guztietan; eta neurri neurrian egon zen Tomas.

Bigarren saria Pedro Arratibelendako eta irugarrena ere Sakanan gelditua da: Antonio Senar, Lizarraga'koak jaso zuen. Zorionak eta beste urte bat arte.



Euskal festa Etxarri Aranaz'en

Euskal Festa ederra Sanmigeletan Etxarriaren egin dena. Eta giro ezin ohea an sumatzen zena. Ba ziren bildur pixkaren bat zeukaten gizonak; baño Etxarri eman du bere euskal-zalatasunaren neurria. Beterik, kantarien entzuteko, «Aralar» Zine-gela aundia; eta jendea zuti sarrerarik ez eta. Euskal disko asko batzun eta besten eskutan. Esku-zarta beroak kantari bakoitzaren lanaren ondotik. Poz aundia Euskalerrari eman diona.

Goizetik Meza Nagusia. Norbaitek zion, gurasoen bekatua izan dela Etxarrikoa. Beste erritakoa bezela, erantzun nion nere baitan. Jakintza motxeko erritan gertatzen dena: bertako aberastasunen berri jakin ez, eta utskerien billa denak. Euskalerrari guziaren bekatua. Etxarri aize berriak jotzen dute. Aur txikien eskolak oso ongi artuak izan ziren gu-

rasoen aldetik eta aundien lana aste-koak dira orai. Zorionak. Alare, gurasoak beren etxetan asten ez diren arte aurkak gaizki ibiliko dira euskeran. Biotz jokabidea da.

«PRINCIPE DE VIANA» Diputazio-ko elkargoak eratu du festa. Gure ondasunak goratu nahi ontan eusker gaizetan jarri dituzte bere begiak. Ez da bakarrik jauregi eta eliz arri-eri esku botatzea; or dago euskal jakintza betiko galtzeko arriskuan. Euskerak galduko balitz ez luke munduan iñork ezer irabaziko eta danok galduko. Baño gehiena guk, euskaldunok.

Urmeneta jaunak egin zuen galderak mami aundia zuen: «zenbat gera?» Eta berak eman zion erantzun egokiena «denak». Denok Euskalerriko seme, denok euskaldun. Odol

laurden bat Etxarrikoa zuela esan zien, bere aitona angoa bai zen.

Lourdes Iriondo, Lertxundi ta Lete ezagunak genituen. Urrikatz Bikotea zoragarri egon zen eta berdin Celaya kordeonista. Atsaldeko pilotari partida eta bertsulariak osotu zuten festa. Zorionak parte artu duten guzietan. Zahar berritzen ez den erriak ez du iraupenik, eta gurea berritzen dijoa. Baserritarrez jantziak ziren aurtxoak dira gure erriaren odol berria, doñu berritan sartua den talde gaztea bezela.

Munduko jakintsuak guri begira jarriak dira ain jakintza zaharrez arrituak, norbaitek festan esan zuen bezela. Ez dezatela gure erriak bere burua urkatu duela esateko biderik izan biarko egunean. Etxarriko euskal festa bezain jatorrak maiz behar ginuzke gure erritan. Pozik belegezke etxarriarrak.

ERRIZ-ERRI



BAZTAN

ERIOZTA ARRAIOTZ'EN

Askotan esan izan oi dugu jaiotzari eriotza zor zaiola. Zar eta gazte, aundi eta txiki; aberats ta beartsu, agintari ta mendeko; jaiotako denek azken berdiña dutela: eriotza. Noiz, ez dakigu; bañan, bein bakarrik dela, bai.

Gaur, berriz-ere, Arraiotz ekartzan dugu PRINCIPE DE VIANA'ren lerro auetara. Arraiotz aipatzean, gauz aundiak ekarri genezazke gogora: antziñako etxe-jauregi eder oiek dirala... apaizgintzarako loretegi bat dela... erri zintzo ta euskalduna dela ta abar.

Ez noa, ordea, gaur kondaira ta ixtori aundiko etxe aundi oien goraberak ibiltzera, erriko seme baten uste-gabeko eriotzari buruz baizik. Don Eujenio Etxenike Goñi, Goizueta'ko Erretor jaunarena, alegia.

Agorra'ren (Burulla) ogei ta bigarrenean, Jainkoak bere-ganatu zuen, aidiñik ederreanean, berrogei ta amalau urte zeuzkala. Goizueta'ko jendea, arri-il-otza gelditu zan bat-batean zabaldu zanean «Don Eujenio il omen da». BA-NOA AITA'REN GANA... esateko astirik gabe, mutu ta ustelkor gelditu zan. Goizueta'ko artalde ederraren artzaiak bizia eman zuen. Egileak eskatu zion. Negarrez ta umezurtz utzi ditu. Bañan, Goizuetarrek, ba-dute sinismena, fedea ta «egin bedi zure borondatea...» biotzkor bat izango zan momentu aietan otoiartz ederrena. Luzaroan, beti, izango dio Goizuetak oroitzapen aundi bat.

Don Eujenio Etxenike Goñi, apaizgintzara iritxi zanean, osorik ta bete-betean, eman zan ardiñen alde, arimen alde. Ogei ta bost urte, or nunbait, apaiz egin zala. Urte oien zear, zenbat meza eman ote zituen! Zenbat aitortza, konfesio entzun! Zenbat komunio eman! Zenbat itzaldi! Eta zenbatekin arkitu ote zan eriotzeko orduan! Lan bikaña. Lan saildua. Orain berriz, bera an, zerrugoiatzen. Aibeste aldiz ta aibesteri ongi bizitzen ta ongi iltzen lagundu zien aien artean. Bere izpirituak, arimak, an du jar-leku. Gorpuzta, gurekin. Gure tartean, ustelkor. Otoiartz dezaigun.

Eta... ildakoaren adixkide giñanak, Arraiotz tar geranok, zer esango dugu? Ezin ta geiago maite dugula gero sort-erria. Maite ditugu erriarrak. Zikin ta zimur zerbait azaltzen bazaigu aurrean, kentzera egiten dugu. Maite gera. Eta, maite goralako, maite-ere genuen Etxenike ta Goñi' tar Eujenio apaiza. Orregatik, bere arimaren aldeko illeta ta elizkizunetan aibeste edertasun; aibeste-ko debozio ta errespetu; aibeste-ko jendeketa. Goian bego!

Uste dugunez, Arraiotz erri txikia izanarren ta bere bizi-lagunen eraberara, Napparroan geien apaiz eman duen erri bat da. Egiazko «loretegi» bat izan da Arraiotz apaizgintzaren gañean. Orain zorritzarrez, zapzi apaiz gelditzen zaizkigu. Jaunak luzaroan gorde ditzagula.

Gure dolu-min bizi batekin, lagun egiten diegu Don Eujenio zenaren sende (aurride) illoba ta familiar guzieri.

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

BESTAK

Elbetarrek beren erriko bestak ospatu dituzte. Santa Krutz egunean eta urtero bezala goizean Meza Nagusi ederra eta gero eguerdian erriko plazan, Mutil-dantza. Etxe guzietan bazkari ederrak eta plazan naiko soñu ta dantza. Elbete'ko bestak beti izate dute errekte eta aurten ere yende aunitz ibili da. «Santakruztzek» gan dire eta orai iretzek eta usok, nekazarien izerdi ta nekeak eta ihiztarien espantu ta tiroak.

ESKOLAK

Napparro'ko Diputazioaren eta Eskoletako Aintzindieren aginduz, orai arte Baztan'go mendietako auzoetan izaten gintuen eskolak kendu dituzte eta orai erabaki aundi bat artua dute, eta au da, baserrietako mutiko ta neskatikoak zapzi urtetatik amalau bizkitartekoak Arizkun'go Lamierriteko etxean bildu bearrak ditzatela. Emen eskola on bat ikasiko

omen dute, dotriña ere bai eta oratarako apez baztandar euskaldunak izanen dituzte erakustale. Etxe huntan aste guzia pasatuko dute, astelenetik asi ta larunbata artio. Larunbata bazkalondoan beren etxetara goaten al dire gero berriz asteleanean etortzeko. Aste guziko otorduak eta garbitasunak mutikoen familliei deusere kosta gabe, mantenu ona eta auserki izanen omen dute eta gurasoak trankil egoten al dire. Goan den urtean 16 gaztekoek ikasi zuten Lamierrite'ko etxe ortan eta yazko ikasketa oiek ondorio ona ekarri dute naski. Urriko ilabete huntan astekoak dire eta orai ikusi bearra gauzak nola moldatzen dituzten, beti ere ikasketa guziak ongi gerta daitzila eta beti euskaldun yendeari eta gure mintzairari ongi begiratuaz gure erriko kulturak merexi duen bezala. Lamierrite'ko eskola auek, Baztan'go Balleko Etxearen laguntza osoa dute.

M. I.



SALDIAS

OSASUNARI BEGIRATZALLEAK

Nik ezdakit zuek konturatzen zeren edo ez, baño gaurko egunean, Jaungoikoari eskerrak, gure osasunaren begiratzalleak baditugu. Bestela begira zenbat sendaleku (klinika, hospitaleak... dauden bazterretan; zenbat sendagile (mediku, praktikante, enfermeruak...); zenbat sendagai (medizinak), eta zenbat eratakoak. Oietaz gaiñera, orain beste garrantzi aundiko gauz bat egiten asi dira: «Tuberkulina» deitzen zaion indizio baten bidez, jende gazteak, birrikak (pulmonak) sano ote daukaten edo ez, ikusten. Ogeitabat urte bitartekoari eman diete eta iru bakarrik azaldu dira dudakoak. Gero oiek izandu dira Iruñian Errayosen ikusten eta ezdieta ezer arkitu. Nere ustez oso lan estimagarria da au eta debalde dena gaiñera.

UMENTXOENTZAT BERRIAK

«Diario de Navarra»-k urtero erartzen duen «Axular» izeneko ipui leiaketaren lenengo saria Mantxeneko bordako Sabastianari eman diote. Sari ori 1.500 pezeta izan da. Baita ere «Diario de Navarra»-k sarritu ditu 150 pezeta Kin Koskorreneko Aifredoren eta Birpiniaren eta Argiñeko Zelinaren izenaren bialtako ipuiak. Zorionak denei!

LEGASA (Bertizarana)

Erri txiki onetatik denak euskaldunak berriak igorri nai nituzke.

Emengo bestak yoan dira. Yoan den illabetian, auda Agustuan 28 garrenian San Agustín eguna da emengo patroia.

Bestak denbora txarrakin asi ziran baño iru ondar egunak ona egin zuen. Yende asko bildu zan ondar egunian, igandean, eta guardia Zibilak naiko lan izanzu zuten. Eguna ta lauretan ogei ta zapzi coche konatatu zituzten. Aisa atortzen da erri ontara jendia zerengatik bestak politak dira eta alegreak, Inguru ontakoak akitu dira ia yoanda uda.

Orain negu beltza ontan sartzera goaz. Iratzeak gorritzen asi dira eta gaztañak ontzen baño lenago azierako belarrak jendia egiten ari da, denbora txarra egiteagatik.

Erriak mejora egin du baserrietan. Ura paratu dio emengo baserrieri. Bazagon biarra.

Yllabete ontan zortzi egunean Santa Leokadia zen. Erri onek badu ermita bat urbil egun ortan jendea araño yoaten dena. Aurten igandea rekin zen eta jende aunitz joan zen, gero leku pollita baida jendia kanoan balkaitzen gelditu zen. Meza bakarrik ematen da. Lenagoko urtean geiagokin jendea yoaten zen. Denak uzten asi dira.

Agur yaunak eta milla esker.

PILLOTARIAK

Yoan den Agustuan 25 egunean NARBARTO'ko errian gazte arteko partidua pilota au izan gendun: Bergara II eta Fagoaga, Magaña eta Zubiria'ren kontra. Bergara erakutsi zitun bere pillotarako dotiak, bai ma-

jo aritu zen! denetan nabariena. Au ere denbora dela medio pillotari azkarra izango da ola joaten bada. Bere anaiaren bidea segitu biar izanen du; azkenian Bergara eta Fagoaga 22, Magaña eta Zubiriak 12.

Bigarrenean ere aisa Bergarak irabazi zuen partidua. Bergara eta Fagoaga 18, Magaña eta Arretzek 9. Aretxe au pillotari zaarra da baño gaztiak geyago izanik. Bergara beti ongi aritu zen, baño baita ere bere laguna.

Fagoaga Erratzukoa. Ta baita Magaña NARBARTO'koa. Aurrera mutillak!, ta nola ez Bergara aiz agudo Atanon kontra. Aurrera!

LEGASATAR BAT



LESAKA

ANASTASIO APAIZ BERRIARI

Yrailla'ren lendabizian deitu zira ten Lesaka'ra. Anastasio gaztearen meza berria zan. Bene-benetan alai-garri egun ura:

Ttuntunakin ateri zan apaiz berria Erriko-Etxetik. Bere guraso, anai ta erriar guztiak lagundu gendun Eliz aldera.

Erri meza. Dana euskeraz. Txistulariak, meza erdian gurtu zuten Jauna, Lesakako erriñen izenean. Ta nik ere, nere lekua beteaz, lesakar guztien ordezkari eskeindu ta eskertu nuan, bertso batzuek abestuz.

Ez arrokeriz, eskatu diraztelako baizik, ona emen idatziak bertso aiek:

ESKEINTZAN:

Guraso maite, apaiz berria eta gañeko guztiak, Eliz ontara ekarri gaitu emengo meza berriak.

Jesus maitea itzuli zazu gaur guregana begiak bere semea eskeintze dizu gaur Lesakako erriak.

Ainbeste egun, eta illabete gañera berriz urteak estudiatzen pasatu ditu Anastasio gazteak.

Bañan gaurtik zabandu dira zure meza belarriak apaiz egiten lagundu dizu gure Jaungoiko maitiak.

Danak paketsu, danak pozetan guztiok zorionean, nola ez gera gu ere egongo apaizen aldamenian.

Nik ondo dakit, toki bat dago gure biotz barrenean, eta berriak abestuko dut Jauna artu ondorenan.

Azkenean, beste doñu batean: Ogi puska bat bere itxurakin etorri zaigu guduntzat danak dakigu oi bera dala Jesu-Kristoren Gorputza. Garbituzten du gure anima eta alaitu biotza, Bera orretzek ematen digu kristautasunen laguntza.

Anastasio, aita ta ama, dauzkazue Eliz barruan, sende eta erriar danak berrizkan inguruan; biar urrutu izan zitezke gaur nai degunak onduan, eta lagunak egin zaiguzu eriotzeko orduan.

Etorri gera meza ederrakin guztion borondateak, asarre lanak utzi ditzagun eta anaitu gaizkiak, alkartasuna izan dezagun jaio-ill lur maitea,



Juan Bikondo artzain baztandarra

EUSKALERRIKO ESKU-LANAK

Buruilako illabetean, aurten ere igaz bezala Donosti'ko Turismo Etxeak euskal-bestak antolatu ditu Donostian eta aiberri- tze ikusgarrien artean oraingoan ere Trinitateko plazan, Euskalerriko esku-lanak erakutsi dituzte, lan oien egileek yendearen aintzinean ari izan direlarik.

Esku-lan auetan 25 langile ari izanak dira, 16 gipuzkoar eta 9 nafatar. Napar oien artean, bertz baztandar, lau leitzar eta Aragoiko muga aldeko bat. Emen naparren izenak:

Juan Bikondo, Arizkundarra, baztandarra. 83 urteko artzaña; taloak eta marrakukuak egiten zituela eta bai burdin-arri guriekin esnea egosten zuela. Gizon hunen lanak errekte aundia izan dute eta bere inguruan yende aunitz biltzen omen zen berak egiten zituen «marrakuku» goxoak yatera. Esku-langile guztietan au zen zaharrena eta bere lana ederra izan da.

Domingo Etxandi, erratzuarra, baztandarra. Kaiku, opor, arraztelu eta bertze gauz aunitz egiten zituena, hunen lanak gustagarriak izan dira. Etxandi yaunak «Museo de San Telmo» deitutako Etxeari, kaiku, opor ta berak egindako zenbait lan erregalutzat eman dizkio, Museo Etxeak bere oroitzapen bat izan dezan.

Nieves Salaburu, elizondarra, baztandarra, buztin zuriekin ardi ta bildotsen iduriek edo figurek egiten zituela.

Gillermo Amezttoy, iruritarra, baztandarra, eskalapuñ egile. **Pedro Zapata**, arizkundarra, baztandarra, ferrak eta burdin-lan politak egiten zituela.

Maria Zabaleta, leitzarra, ogia eta taloak eginik hunek ere yende aunitz biltzen omen zuen bere inguruan.

Karmen Saralegi, leitzarra, ardi ilearekin galtzerdi-motzak egiten zituela.

Karmen Zabaleta, au ere leitzarra, «alfonbra» ederrak egiten zituela.

Lorentzo Perez, Kastillonuevo'koa. Langile hunek ezpelezko kutxetak egiten zituen.

Gipuzkoarren artean baziren, uztargile, espartingile eta lan mota aunitzakoak.

Donosti'ko Trinitateko plaza esku-lan oiek iraun duten zapzi egunetan yendez bete egon omen da eta euskaldun esku-lan-gileek egindako lanak denen gogokoak izan omen dira.

Zorionak Turismo Etxeari, Elkarte au izan baita ikusgarri eder oien antolatzalea eta gure goresmenik maitekorrenak lan oietan aritu diren guzieri batez ere naparreri. Yarraiki zuen lan eder oietan eta gure Yaunak aunitz urtez kontserba zaitzabela.

M. IZETA

eta Lesakaz oroitu gaituz bizi geraden artean.

M. AROZAMENA

LESAKAR MUSIKA-TALDEARI:

Gazteak, gazteak geralako, beti eskatzen ari gerade. Orain gauz bat, gero bestea, mundu guztia eskuratu naiez... Gazteak bai gera!

Azken ontan ere, jai arratsalde-illunabarreko soñu edo musikari buruz, iskamilla naiko atera degu. Zintzotasun gelago nai genduen, eta orra or eskuratu. Berrituz degu, ba, galdua zegoen giro egokia.

ESKERRIKASKO, diote gazteak, Lesakar musika-taldeari. ESKERRIKASKO, bai.

ANTHON

ARRUAZU

Arbazu, euskeraz esaten den bezala, ezkil onen erria; eta ezkil-jotzalierna. Bi urtez egin dira ezkil-jotze sayoak eta bietan txapeldun gure erriar Tomas Ganboa atera da.

Erriar asko lyebar'en, batez ere gazte jendea. Aize otza eta langarra zeru ilunetik dariola. Txapelduna azken ari beharra zen, eta bere aurretik etsai gogorrena, Arbazuko ezkil jotzailen maisu Pedro Arratibel, orai lruñen bizi dena. Eta antxe egon ziren Arbazuko neska mutillak zer gerta.

Batzuk eta beste beren iritziak ematen ari ziren eta etziren ater-

tzen. Ori ona da; aurpegi luze ta ilun, ezin bestean egotea baño obe. Bizkaitarra oso egoki aritu zen. Beste asko ere bai.

Ikusi nuen neskatx bat sokalariak ainbat lan egin zuena. Nunbaiteko ezkil ixilak jo izan balitu bezala mugitzen ziren aren esku ta espainak Pedro ta Tomas jotzen asi zirenean. Nik uste elitzakela atzean geldituko berare lan ortan. Eta arek egurtzen zuen ezin egona zeramaten barnean bere lagunak ere.

Pedro Arratibel oso ongi iduritu zitzaigun. Eitzen puntu bat utsegin. Esku aien ikutua garbi ematen zuten burniak. Bi sayoak oso desberdinak izan ziren doñu ta ritmoan; baño berdin ongi joak. Ura entzun eta galdetu zaiken, eginen ote du beste orrenbeste txapeldunak?

Etorri zitzaion bere aldia oberenari eta dakien guzia eginarazi zien bi mutillari. Bildur zen gero jaistean, punturen bat ez ote zitzaion nahi bezala atera. Beste batzun bildurra mai-burukoen jokabidea zoin izango ote zen; merezi ta ere emango zioten bigarren aldia txapela? Eta bai eman, bai! Anjo besarkada eta istilluak. Eitzen gutxiagorendako; asko ziren eta onak. Iru punturen alde exkaxa izan zuten bi arbazuarrak. Ona punduak:

1.º) **Tomas Ganboa Ganboa**, Arbazu'koa. 64'5 (70 punturako) Burnizko txapeldun agiria eta 3.000 pezta. Bigarren aldiz txapeldun.

2.º) **Pedro Arratibel Bergera** (Arbazu). 61'7:

3.º) **Antonio Senar Senar**, Lizarraga (Ergoyena). 61'5.

Zorionak deneri eta ez daillela galdu Arbazuko sokalarien eskola ona.



BATASUNA

Euskalerra, bizitzeko, batasunaren beharretan da. Zerbaitetan iritzi berekoak balin bagera euskaldunok ortantxe izango da. Garbi ikusi da Arantzazuko Batzarrean. Ez dut esana Urriaren 3, 4 eta 5'ean billera aundi bat egin dugula Arantzazu'ko frantziskotarren etxean. Lan garrantza ginuen gure gain artua, euskal batasunarena. Sayo luze ta sakonak, alde batetik; eta bestetik iritzi desberdinak. Baño jendetasun aundiarekin joan dira gauzak eta azkenean argia aterada.

Nor ginen an? Euskaltzaindiaren deia erantzun nahi izan dioten euskaltzaleak. Alegia, idazle ta irakurle; maisu eta ikasle mota guztikoak. Denentzat ziren atariak zabal-zabala. Eta jakina, etzen zahar edo gazteen kontua; an ziren alderdi guziak.


Euskaltzaindiak bere erre-etzietan lan iraunkor bati lotu nahi izan du eta etzaio iduritu batasunarena baño beharrezkoagorik bazenik gure artean. Berdin idatzi beintzat, naiz eta ez berdin esan gauzak. Beste izkuntzetan gertatzen dena. Oñati'n sortu zen Euskal Akademia, eta jakina, Oñati inguruan nahi genituen urte ezteiak ospatu. Au zen mendi zoragarria ereman gaituen aria. Ehun bat pasa izango ginen eta beste alde, iruzki ederra.

Nundik edo nola asi? Ori zen istillua. Eta erraxenetik jo da. Ortografia delako izen marretatik. Joan etorri batzuk gora bera esan dezakegu egin dela gure ortografiaren batasuna. Beste aldi batean emango dugu orren berri, denek jakin dezaten. Oraitik adierazten dugu ez dela zaila izango.

Bigarren gaia morfologia esaten den itzen jokabidea. Eta azkenik iztegiaren aukeratzeari dagokiona. Itz zerrenda aundia du euskerak eta bestalde aldaketa asko. Lan luzea izango da denen aztertzeke lana. Nola nahi dela, asiera ona eman dakio eta uste dut frutu ugariak emango dituela bere egunean Urrilleko Batzarrak.

Asiera esan dugu, besterik ez bai da egin dena. Batasuna ez du Euskaltzaindiak egin behar; ezin luke egin. Batasuna euskaldun guzian egitekoa da, Euskal Akademia gidari dela. Orain ikusiko da zer nolako aria dugun bakoitzak eta sakonagoko lanik etor laiken onen atzetik. Euskeraren eta Euskalerraren onerako batu gaitzen denok.

J. M. S.



ARDI ZAKURREN TXAPELKETA

Oñati'ko «Txantxiku Txoko» Elkarteak aurten ere ardi zakurren txapelketa antolatuta du eta aurtengoarekin bederatzigarrena.

Aurten eguraldi txarra gertatu zen, euria ari zuen eta yendea ere igaz bano aunitzez gutiago etorri omen zen bainan alare iru milla ikusliar bildu omen ziren ardi zakurren ikusgarri ortara.

Amabi zakur beren artzañekin beren ahalmenak erakutsirik an aritu ziren. Iru proba zituzten egin bearrak. Lendabizikoa egin ondoren, Juradoko yaunek amabi zakurretatik zortzi berexi zituzten bertze lauak kanpo utzirik. Bigarregoa zortzi oietarik iru oberenak aukeratu zituzten gañerako bortzak kenduaz. Azkenengo saioan Iru zakur oberenak aritu ziren; «RIKI», «Txabala» eta «LAU» zakurren izenak. Azkenengo proba au zallena zen eta zakurren yakitatearen emen agertu zen. Ardiek belaiaren bazter batean zauden eta artzaña bere zakurrekin oienganik urrun belaiaren bertze bazterrean. Artzañaren aginduz zakurak bear zituen ardi guziak bere nagusiaren ondora ekarri. Gero berriz itzularazi eta belaiaren erdian kokaturik zagon kertzolaren barnera ardi guziak sarrazi eta gero berriz andikan kanpora atera.

Iru zakur oiek agindutako guzia egin zuten eta beren lana bete ta ondoan, Juradoak azken erabakia artu zuen auzia gisa huntan moldaturik:

Txapeldun ta Irabaztale.	«RIKI» Bizkaiko Mañaria'ko Serafin Elantxobe' ren zakurra.
Bigarren.	«TXABALA» Arabako Xabier Okerantza'rena.
Irugarren.	«LAU» Oñati'ko Bizente Urtzelai'ena.
Laugarren.	«PATXI» Araba'ko Amurrio'ko Isaak Udaeta'rena.
Bortzgarren.	«LOBI» Leon'go Villamanan'go Antonio Ruano'rena.
Seigarren.	«JAI» Bizkaiko Mañaria'ko Jose Luis Jayo'rena.
Zazpigarren.	«TXIKI» Nafarroako Lizarraga'ko Zirilo Askargorta'rena.
Zortzigarren.	«CAIMAN» Jerona'ko Ribas'eko Juan Gilla-met'ena.
Bederatzigarren.	«TXIKI» Nafarroa'ko Huarte Arakil'go Rikardo Goikoetxea'rena.
Amargarren.	«MURILLA» Barcelona'ko Moja'ko Jose Gutierrez'ena.
Lendabizikoa.	«FINA» Zubero'ko Sant Engrace'ko Mathieu Bordoy'ena.
Amabigarren.	«PETIT» ZUBERO'KO Licq-Tterey'ko Jean Marie Bidalun'ena.

Aralar'ko erretablo aipatua

«Naparro'an den bitxirik baliosena, Excelsis'ko San Miguel'en dagon esmalteko aldare bizkarrak edo erretabloa da». Itz auekin ematen dio asiera Juaristi'tar Bitoriano jaun idazle argiak erretablo onetaz berak egindako liburuxka bati. Eta geroxeago agertutako idazkiño batean auxe esaten du: «Arri-garria da, ta beronengatik zazpi milloi pezta eskeñiak izandu dira berriki».

Oltza edo erretablo onen balioa eztago naski urrez, edo arri-bitxiz, edo beste olakoz, egiña dalakoan, dena eskuz egiña dalakoan baizik. Ikaragarriko lana bai dute esmalteko gauzak, lengo denboretan egiten ziran moduan, oraingo tresnerik ta makinarik gabe, dena eskuz, lima ta xixelaz kobrea pikaldu ta ustu ta gero usgune oiek, neurrigabeko pazientzi ta enantzuarekin, esmaltez bete.

Arijita jaun berriekarle jakintsuak, bere liburu «Historia de la Imagen y Santuario de San Miguel Excelsis»-ean dioenez, ez omen da mundu guzian beste olako bat baizik, Konstantinoplako len Santa Sofia'ren eliza ta orain «Museo Nacional» delakoan.

Eta onek berak dio ain famatua ta aipatua zala gure Oltza, nunta Errusia'ko Zar edo Erregeak ango pintore on-on bat bialdu bai zun San Miguel'era Oltzaren margozki edo kopia bat egin zezaion. Berak bere begiz ikusi omen zun margozki ori 1894'ko Iraillean ta oso ongi egiña omen zun.

Burgi'ko Tomas Aita Kaputxinoak aipatu zun lenbiziko aldiz erretablo au bere liburu «Historia de San Miguel Excelsis»-ean. Baño bitxi au benetan agirian jarri ziguna Don Pedro Madrazo jakintsua zan. Onek ezagunarazi zun, zeatz-mestz, «Museo Español de Antigüedades» izeneko 6 garren liburuen; eta geroago bere «España, sus monumentos y artes, su naturaleza e Historia» lanaren 3 garren liburuen.

Beste askok ere idatzi izan dute erretablo onetaz, bai etxeokak, bai kanpokoak, ala nola Dom Roulin beneditar frantzes ospetsua (Révue de l'Art Chrétien. 1921); Mr. A. Kingsley Porter, goi amerikar irakaslea; Baltimore'ko Marwin Ch. Ross jauna, eta beste. Yaz agertutako «Navarra Romane» izeneko liburu bikain batean, Frantziz'ko beneditar batzuk xeetasun asko eta argazki edo fotografi ederrak ekartzen dituzte gure aldare bizkar onen gain.

Ainbeste idatzi ta itzegin ondoan ordea, eztagu segur ez noiz, ez nundik, ez nola etorri zan San Miguel'era. Ezta nun egiña dan ere; batzuek Frantzi'ko Limoges'koa da, XII'garren mendekoa; beste batzuek Bizanzio'koa ta as-



koz zaarragoa; Kruzadako gerratekoan andik ekarria; auek Aleman'koa dela aiek Espaiñ'n bertan egindakoa...

Ori bai, denak gauza batean daude ados: esmalte guzietan San Miguel'go erretabloa dela gauzik ederrera ta aberatsena.

Gu ere ortantxe gaude.

A.



«AURRAK IKAS ZAZUE...»

«Onela mintzo da euskal kanta zahar bat. Eta egia esan, arrazoi du, arrazoi borobil borobilla. Gure egunetan milla euskal semek ezdakite euskeraz, eta ez jakin nai ere. Etzaie batera axola euskera, ezta euskera-aren arazoak batera inporta.»

Euskera? Ta neri zer?

Euskera eta zuri zer? Bai zuri ere asko. Zure etxeke ondoko soroa kentzeko baldin balebil iñor, bereala joko zenduke tribulanetara. Ongi dago, eta ala egin bear da.

Ta zure etxea kentzeko, edo galtzeko balego? Orduan ere segur aski etxeren batera joko zenduke, noski. Ta ongi egingo zenduke orduan ere.

Ta... euskera galtzeko zorian dagonen, zer egiten duzu? Erakusten al diezu zure semei? Milla pertsonak gure Euskalerrin ontan ezdie erakusten. Izan ere erderaz itz egitea kursuagoa da. Izan dedilla, baiña zuk, etxeke jaun orrek, zagan izango dituzu zeru ta lurreko madarikaziorik aundienak. Zaude trankil, geroak epaituko zaitu, eta ezdizu arrazoirik emango...»

Auxe zion Arantzazu'ko Egutegiak bere eguneroko orritxo batean. Ira-

kurle, irakurri, edo leitu zendun bere orduan orri auxe? Nik irakurri nuanean, bereala eziñ egon ikaragarri bat sumatu nuan nere barnean.

Eta, nola ez? Itz izugarri ok aditziaren, biotza ezpatatza urratuta bezala gelditu zen, eta nere konzientzia berriz larritu zen. Eta ementxe esango dizkizut nere burutazioak ainbeste, ta ainbeste pentsatutakoa.

Pentsatu dugu noizbaitere, irakurle, gure baratz, alor, soro onenak gure etxe galantak bezin «gurea» dugula euskera, eta aiek aña gutxienez balio duela, eta aietaz añaño arreta euskeraz ere izan bear gendukela? Pentsazu zenuen...

Eta gaurkoan, guraso eta beste gazten ezitzea beregan dutenei galdetzen diet: Erakusten al diezue zuen seme, ikasle mintzatzen eta bear bezela maitatzen?

Eta onoko gogoeta beldurgarri ontaz oroitu nintzen: Munduko gizon guziek, denek-denek, mundu garbi eta zuzenago baten alde lan egin eta saiatu bear dugu, bakoitza guren tokitik; au obligazio eta bear bearezkoa da guzietatik salbatzeko, alperkeri au bekatu gaitza baita.

Eta mundu zuzenago ori nolakoa izan bear den, argi eta garbi Jainkoaren itz eta naiak adierazten digu: gizon bakoitxari bere eskubideak erakutsi eta betearazi; dituen eta aurrekoek utzitako gauz, izkuntz, oituren bidez Jainkoa goretsiki, mundua bere bidez zuzendu; eta auek denak nola egin ditugun, ikusiko da azkenian. Jainkoaren borondate orren antzera saiatu bagera, betirako Zeruko Euskal errira sartuko gerra; au arraza, gende eta izkuntz guzietakoak goretsiko dugu jainkoa.

Bañan zure semei, ikasleei ezbadieze erakutsi, zein izango zure bizi ontako saria, esan bearriz eztago. Itz gogor eta zorrotz auek orduan ortxe dituzu zagan: «...Zagan izango dituzu zeru ta lurreko madarikaziorik aundienak. Zaude trankil, geroak epaituko zaitu, eta ez dizu arrazoirik emango...».

Zure eskuetan daukazu, euskaldun, nolakoa izan azken juizua. Nik ezin utzi nere biotz ezpañetatik kanta auxe: Aurra ikas zazue, euskeraz mintzatzen [bi aldiz] Aire ttun txikittun, aire ttun aire [lau aldiz].

Gure kantu zaharrak kontserba ditzen [tzagun] aire pollitagorik ezda sortu iñun [bi aldiz] Aire ttun txikittun...

Ez achantzi beñere sorterri ederra aren mendiak eta itxaso bazterra [bi aldiz]... aire ttun...

GAINDIZ

«GOIZEAN GOIZ» Musika liburua

Aita Jorge Erriezukoak berriz ere beste Aita Donostiaren musika-liburu berri bat atera du. «GOIZEAN GOIZ» du izena eta Aita Donostiaren Musika-lanaren zazpi zatia da. Oraingoz zazpi liburu Lekarotzko Eskolategiak argitaratu ditu Aita Donostiaren soinu-lanegiñetatik sail bat oraindik ekartzen dutenak. Beste ainbeste liburu argitaratzekotan gelditzen dira bere garaian Aita Jorge Erriezuko yakintsuak moldatu eta argitaratuko dituenak.

Azkeneko liburu au «Goizean goiz» beste sei lenagoko liburuak bezelaxe ongi apaindua da. Badauzka 146 orrialdeak. Berrogeitamasei euskal kantuak eta amaika katalandarrak dira bere barruan.

Ona emen Euskal kantuen izenak: Ene maitea, Arrosa eder, Amets egin dut, Kriatura bat xarmegarria, Aldapeko, Nere txiki, Goizean goiz jekirik, Urrundik ikusten dut, Mundian den ederrera, Asuri beltza, Neure maitena aranteltz, Abenduaren lendabiziko, Agur, oi izar maitea, Din, dan, bolera, Txoriñoak kaiolan, Lua, lua, Txalopin txalo, Oi Pello, Pello, Ni eznaiz zomorrua, Arranoak bortietan, Arbolaren edarraren. Nundik ator, Astoa? Oroitzen naiz, oroitzen. Bollon bat eta bollon bi. Baratzeko pikuak. Erreeg gizon ederrik. Zazpi eihera badituz. Santa Barbara. Atte ttuntun. Horra gitzagizie. Nolan Aintziñako oitura (auek pianoz lagundutzeko ematekoak).

Agur jaunak. Ene maitea. Aitak et'amak. Ene ama, otoi, errazu. Aldudan gizonik ez. Ama. Ai Anjela. Argizagi ederra. Ezda filosoforik. Euskaldun seme dena. Seaska-kantua. Lehengo denboretan. Irutxiko.

Gure eskerrik eta goresmenik bizienak Lekarotzko Aita Kaputxinoeri eta berariez Aita Jorge Erriezukoeri.

Arraza obereneko ardi zakurreri emandako sari berexiak.

Amekagarren. «TXIKI» Huarte Arakilgo Rikardo Goikoetxea'rena.

Bigarren. «LOBI» Leon'go Antonio Ruano'rena.

Irugarren. «LAU» Oñati'ko Bizente Urtzelai'ena.

Juradoren erabakia ongi emana omen zagon. «RIKI» irabaztalea izan omen zen dudik gabe oherena. Nafartarrak suerte txarra izan zuten Huarte Arakil'go «TXIKI» txakur eme ttipiak lan gutxi egin zuen, bidaian autoan xoratu omen zen eta gaixoa erixko arkitzen zen eta ortaz bada berak egindako lana exkaxa izan omen zen. Urrengoan geiago eginen du.

Aintzineko urte oietan baño yende gutiago omen zen bañan zakurren lana beñere ez bezalakoa. Zorionak Txapelketaren antolatzaileeri eta datorren urtean suerte obeagokoa izan dezatela.

ANZANARRI